

Tapizak beti garbi


Etxeko osagai guztiak zikindu, hautsi edo zatartzen dira; baina are gehiago lurrean eta une oro zapalduta dauden tapizak. Urte ugarian irauten duen elementua da, baina zainketa egoki bat egin ez gero, oraindik luzaroagoan iraungo du ziur aski. Astero-ko garbiketa oso ongi dago, eta beharrezkoa da, gainera; baina adituek azaleko garbiketa horretaz gain, urtean behin arreta handiagoz eginiko beste garbiketa bat gomendatzen dute. Astero-astero aspiragailua pasatzeak zikinik edo hautsik nabarmenak kenduko dizkio, baina urarekin garbitzea ere komenigarria da. Alabai-

na, tapizaren materiala kontuan hartze-ko zerbait da, ehun naturalak ahalik eta gutxien busti behar baitira. Kotoia eta artilea bustitzeak, berriz, ez du hainbeste garrantzirik Garbiketa egokia egiteko, amoniakoa, eskuila horzduna eta gomazko eskuzorro pareta besterik ez dira behar. Lehenik eta behin aspiragailua pasa behar da tapizaren bi aldeetatik. Ondoren, ur berotara amoniakoa bota, eta eskuilarekin ondo orraztu, ilearen norabidean —garbitu behar duenak eskuzorroak eramatea da egokiena—. Behin lehortuta, geratu diren zikinkeriak ken daitezke.

Ondo lo egiteko lastaira prest

Bizkarreko minarekin jaikitzen garenean edo lo ondo egin ez dugun egun horietan lastairari bota ohi diogu errua; batzuetan hala ez izanagatik, beste askotan huraxe izaten da eragile bakar. Denbora dezente da jada adituek lastairen nolakotasunaren inguruan gomendioak zabaltzen dituztela: bigunak oso txarrak direla; gogor samarrak behar dutela izan, baina kontuz, gogor-gogorregiak ere ez... Azkenean, ezer ez eta festa! Daukazun lastaira izanda ere, zainketa egoki batek duen garrantzia aipatuko dizugu. Denborarekin oreka galdu eta itxura aldatzen zaio, beti pisua toki berean jasan behar izaten duelako. Hala, bi hi-

labete oro buelta ematea gomendatzen da: buruko aldea hanketara eraman, eta alderantziz. Haatik, lastairak oraindik ere pisua alde batetik izango du gehiago (loderari begira, beti goiko aldean); beraz, urtaro aldaketetan iraultzea komeni da (goiko aldea beheara, eta alderantziz).



Giro berezia, kandela are bereziagoekin

Bat-bateko afari erromantiko bat sortzen bazaizu, eta mahaian jartzeko kandelarik ez baduzu, etxean bertan egin dezakezun irtenbide bat aipatuko dizugu. Zer den beharrezkoa? Bada, arrautzak, argizaria, metxak eta arrautzontzi bitxiren bat. Sumatuko zenuen bezala, arrautza oskolek egingo dute kandelen funtzioa. Lehenik eta behin, arrautzak egosi egin behar dira, erabat gogorak egon arte. Ondoren, erditik moztu eta kontu handiarekin hustu egin behar dira (lasai-lasai egin beharreko zerbait da, oskolak aise hausten

baitira). Gero, argizaria urtu behar da, eta oskol bakoitzean pixka bat bota. Oraindik ere argizaria bero dagoela, metxa baina jarri bakoitzean eta piztu. Arrautzontzia arrunta bada, oinarrian goroldioa jarri eta gainean jar daitezke sua duten arrautzak. Baina komenigarria da irudikoa bezalako arrautzontzi bat izatea, goiko aldeko euskarri horietan askoz hobeto eusten baitira. Denbora askorik galdu gabe presta dezakezu, beraz, mahaia hornituko duen osagaia. Izan ere, zer da afari erromantiko bat *kandelarik* gabe?

